

2013KO ABENDUAREN 19AN EGINDAKO OHIKO UDAL BILKURA

Herria: Bakio

Tokia: Bakioko Udaletxea

Eguna eta ordua: 2013ko abenduaren 19an, arratsaldeko 7:00etan

BATZARKIDEAK:

Lehendakaria: AITOR APRAIZ IMATZ

Zinegotziak:

- PALOMA DE EPALZA GARCES DE LOS FAYOS
- ELSA MARÍA IMATZ BASARRATE
- LUIS FLORENCIO ZABALA SANTA ANA
- FELICIANO JAUREGUIZAR ORAINDI
- JON PELI HORMAECHE ASOLO
- ALBERTO BILBAO BELTRÁN DE GUEVARA
- GORKA RENTERIA GARAI

MIREN LUKE VERDES CEARRA, AMETS JAUREGIZAR BARAIAZARRA eta IKER MURUAGA GOIKOETXEA zinegotziak ez ziran bertaratu

Helburua: Lehenengo deialdian, udalaren ohiko bilkura egitea. Era berean, kontuan hartu behar da Juan Francisco Eiguren Kortazar idazkariak bilkura horretako zinegotziei deitu deustela legeak agintzen dauanaren arabera.

Idazkari jaunak batzarrari hasikera emoteko legezko “quorum”a dagoala egiaztatu orduko, alkate jaunaren lehendakaritzapean ondorengo gai honeek eztabaidatu eta erabagi dira:

1.- 2013KO ZEMENDIAREN 28AN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA IRAKURRI ETA ONETSI, HALA BEHAR BALITZ.

Gaurko batzarraren eguneko aztergaien zerrendagaz batera bialdu jake zinegotziei 2013ko zemendiaren 28ko ohiko udalbatzaren akta, eta alkateak galdetu dau akta horretaz ea inork ezer esateko daukan.

Felix Jauregizar zinegotziak, Bildu-Bakio udal taldearen izenean, honakoa dino:

274/2013 dekretuaren harira ondorengo hau adierazo ebala eta, beraz, aktan horrela jaso behar dala: *udal lokalen erabilera esleitzeko orduan, erabilten dan erispideagaz ez*

datorrela bat. Izan be, pertsona bateri ikastaroren bat emon ahal izateko lokala ixten jako, beti be 10 euroko prezio publikoa ordaintzen badau, eta horraino ondo dago ze udal ordenantzan horrela dakar-eta, ganera, ikastaro horregaitik ikasleei diru bat kobratzen bajako, ziur asko irabaziak izango dauz; baina, gertatzen da, era berean, pertsona edo talde batek berbaldi edo ekitaldi bat emoteko udal lokalaren erabilera eskatzea eta jarduna irabazi asmo bakoa eta herriarentzat interesagarria izan arren udalak prezio publikoa kobratzea, eta hori oker handia da, ze azken kasu horretan lokala erabiltzea doan izan beharko litzateke.

Zinegotzi horrek dino be talde batzuk eskabideak beste batzuen izenean egiten dabezala, horrela bada, iruzurra eginaz, eta, beraz, geure buruari iruzurra egiten gabiltzala, horren adibidea karparen kasua da, ze hori erabilteko eskabidea talde batek beste baten izenean egiten daualako, eta horrelako kasuak zuzentzeko onena ordenantzea aldarazotea litzatekela.

Aztergaien 3, puntuan, barriz, kiroldegiaren kudeaketari jagokonez, aktan jasotakoaz gain, BILDU-BAKIO taldeak zergaitik emon eban abstentzino botoa adierazo ebala, eta aktan jaso daitela:

Kiroldegia da jendea batu eta hartu emonak izateko herriko leku esanguratsuen, eta hori horrela dan ezker, udalak ekipamendu hori mantentzeko orduan aparteko begirunea izan beharko leuke. Ganera, beharbada, diruz lagundu beharko leuke, jendeak zerbitzuak behar dan lez jaso daizan, ze herritarrek bai galdetzen dabe kiroldegia funtzionatzeko ea zelan ez dagoan dirurik, eta, beste ekipamendu batzuetarako, ostera bai, txakolingunea kasuan, esaterako.

Beraz, esan dogun modura BILDU-BAKIO taldearen proposamena kiroldegia kudeatzeko ez da pleguan dakarren modura egitea, hau da, enpresa pribatuaren bidez, udalak zuzenean egitea baino, herritarrei zerbitzu publiko duina eskaintzeko baliabideak ipiniz.

Kiroldegia zabalduko da EAJ/PNV taldearen proposamenean jasoten dan ildoari jarraituz; izan be, hori da aukera bakarra, talde horren zinegotziek udaleko gehiengoak diralako. Beraz, BILDU taldeak bere planteamendua daukan arren eta, beraz, EAJk kiroldegiaren funtzionamenduari buruz daukan planteamenduagaz bat ez datorren arren, BILDU taldea bozkatzeko orduan abstenidu egingo da, herritarrak instalazino hori martxan lehenbailehen jarteko itxaroten dagozalako.

Beraz, udalbatzak zehaztopen horreek aktan jasotea erabagi dau.

2.- ALKATETZAREN DEKRETUEN BARRI EMON.

Gai honeri hasikera emoteko, idazkari jaunak ondorengo dekretuen barri emon dau; halanda be, zinegotziak dekretuen kopien jaube dira.

296/2013.- Txakolingunearen diru-laguntzaren itzulketa partzialaren proposamena onartzea 171.652,67 euroan eta behin ordainagiria jasota zenbateko hori ordaintzea.

297/2013.- Sastarrak batzeko lanak esleitzeko kontratazino mahaia eratzea.

298/2013.- Amaia Zabala Mintegi andreari Kultur Etxeko gela batean eskulangintzako zereginak aurrera eroateko baimena alokatzea.

299/2013.- “Gaztedi Bizkaia” proiektuaren ildotik gaztediaren proiektu integrala ezarri, sustatu eta garatzeko, 2013 urterako “Gaztedi Mungialdea” proiektua abiarazoz, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Uribe-Butroeko Zerbitzu Mankomunitatearen eta Arrieta, Bakio, Fruiz, Gamiz-Fika, Gatika, Laukiz, Maruri-Jatabe eta Mungiako Udalen arteko lankidetzaren hitzarmena onestea.

300/2013.- 1222/2013 zenbakidun administrazioagazko auzibide barruan emondako epaia betearazotea.

301/2013.- JON PELI HORMAETXE ASOLO, Bakio Kirol Taldearen izenean, moila puntan lapikokoen txapelketa-ekitaldia egiteko baimena emotea.

302/2013.- PEDRO LONGARAY GARAY jaunari, LUZARRAGAKO BIDEKO 2. JAUBEKIDEEN KOMUNIDADEAREN izenean, eraikin horretako fatxadak barriztatzeko udal lizentzia emotea.

303/2013.- Nitxoaren kontzesinoa luzatzeko deialdia.

304/2013.- Guraso Alkarteari 1.601,58ko diru-laguntzinoa emotea.

305/2013.- Epaitegiak zemendiaren 6ko 240/2013 zk. epaiaren bidez, “Construcciones Moraga, S.A.” enpresek aurkeztutako administrazioagazko auzi-errekursoaren barri emotea.

306/2013.- Kredituak aldarazteko espedienteari hasikerea emotea.

307/2013.- Aitor Alzaga Renteria jaunari, ATXURRE FUTBOL SALA TALDEAREN izenean, baimena emotea Bakio Bost & Bost Areto-Futbol Txapelketa egiteko.

308/2013.- Behin ANTTON LUENGO CELAYA jaunari, BARRONDO PATRIMONIO S.L. enpresaren izenean, udal lizentzia emotea San Pelaioko bide nagusiko 45. Zenbakiko eraikinaren fatxadak barriztatzeko.

309/2013.- Kiroldagiko tentsino txikiko instalazinoa aldizka-aldizka mantendu behar dan ezker, zeregin horreek aurrera atarateko Tecuni, S.A. enpresak aurkeztutako proposamena onartzea.

310/2013.- Carolina Henao Herrera andreari arriskutsuak izan daitezkezan animaliak eukiteko 48012/13/0017 zenbakiko lizentzia administratiboa emotea bost urterako.

311/2013.- .- David Dario Nieves Sandoval jaunari arriskutsuak izan daitezkezan animaliak eukiteko 48012/13/0018 zenbakiko lizentzia administratiboa emotea bost urterako.

312/2013.- *Begoña Aguayo andreari, Bakio Hedatzen alkartearen izenean, Lehiaketa Ibilgailuen I. Erakusketea egiteko udal baimena emotea.*

313/2013.- *URKITZA IKASTETXEKO IKASLEEN GURASO ELKARTEAri baimena emotea Olentzeroren Jaia ospatzeko.*

314/2013.- *Egoitz Abio Arrillaga jaunari Txakolindegian ZURE TXANDA partaidetza ekimenari jarraipena emoteko udal baimena emotea.*

1.- Felix Jauregizar zinegotziak argibideak eskatu dauz 305/2013 dekretuaren ganean.

Alkateak dino, Elexalde eremuko urbanizazio obren esleipenaren ganean, auzitegiak, 46/2012 zk. administrazioagazko prozeduraren barruan, “Construcciones Moraga” enpresek aurkeztutako auzi-errekurtsoa ontzat emon dauala, epaian ageri diran arrazoiak dirala-eta.

Felixek dinotso esleipen horren prozedura zeresana emon dauala; izan be, hainbat txosten eta bestelako idatziak egin dira, pilo bat batzar bai zinegotzian artean, bai eta Gailur enpresegaz be, pilo bat akats eta gauza ilun egon dira, Gailurren aldetik opakotasuna egoala esan gendualako eta akabuan gertatu da ez zana gertatu behar, auzitegiak errekurtsogileari arrazoia emotea, eta hori dana udal gobernuaren burutasunagaitik.

Alkateak dinotso obren esleipena zentzuz egin zala, hau da, proposamen onena eta merkeena (Elexalde lursailen eremuko jaubeen mesederako, azken batean, eurok ordaindu behar dabe-eta) eta obra epe laburrean egitea eskaini eban kontratistearen proposamena aukeratu zala. Beraz, adjudikazioa eskaintza hobereana egin ebanak irabazi ebala.

Felixek erantzun deutso esanez Gailurren proposamena merkeena izan bazan be, garbiena, ostera, Moragak aurkeztutako izan zala. Ganera, ha lehenengotatik hasi zan gauzak txarto egiten; gogorazotea baino ez dago Gailur obrak esleitu aurretik egiten hasi eta obra erdia egin ebala, eta horrek bidea emon eutsola proposamenean obrak amaitzeko epe laburrago eskaintzeko; eta Bilduk aurkeztutako ekimenez izapidetutako zigorpen prozeduraren ondorioz, 5.000 euroko isuna emon jakola.

Felixek eta Aitorrek horren ganean eztabaida izan dabe eta bakotxak berenari eutsi deutso.

Era berean Felixek galdetu dau aitaturako epaiaren ondorioz ordaindu behar dauzan 71.511,55 euroak ia nork eta nondik ordainduko diran.

Alkateak erantzun deutso esanez ordainketaren nondik-norakoa astelehen honetako informazio batzordean azaldu zala; horretarako, udal aurrekontuan egindako aldarazpenaren barri emonaz; izan be, aldarazpen hori Alkatetzaren Dekretuaren 306/2013 ageri da eta dekretuen zerrenda barruan dago.

Felixek dino ia non dagoen espedientea eta txosten juridikoa.

Alkateak dinotso espedientea badagoala, txosten juridikoa tartean dala, eta espedienteaz azaltzen danaren azalpena informazino batzordean emon ebala.

Felixek galdetu dau ia eurak zergaitik ez daben aukerarik izan espedientea ikusteko, eta kexea azaldu dau, adierazoz, hori dala eta, dekretuak ez daukala baliorik; eta galdetu dau aitaturako 71.511,55 euroak nork ordainduko dauzan, eta Gailurrek ordaindu badauz, egin dau aurretiaz udal gobernuaren eta haren artean ituna egin zalako; zertarako? Obrak prezio merkeagoan eskaini obrea berari esleitzeko eta auzi-errekurtsoaren ondorioz udalak kalte-ordainik ordaintzera behartuta balego enpresek ordaintzeko; izan be, ikusitakoa ikusita gertatu dana horrela interpretatu beharra dago.

Alberto Bilbao zinegotziak dino espedienteen barri informazino batzordean emon behar dala eta, horrenbestez, idazkariak udalbatzak prestatzeko informazino batzordean parte hartu behar dauala.

Alkateak barrero dino espedientea bai azaldu dala informazino batzordean.

Felix Jauregizar dino 306/2013 dekretuan txosten juridikoa falta dala, eta, beraz, dekretuak baliorik ez daukala.

Alkateak dino dekretu horren espedientea informazino batzordean azaldu zala, eta txostena esku artean daukanez erakutsi eta irakurri egin be egin dauz.

Idazkariak dino dekretu bakotxak espedientea daukiela, eta, esate baterako, 25 dekretuen zerrendan 25 espediente badagoz lan karga itzala dala danak ikustea. Edozelan be, dekretuak Alkatetzaren eskumena diran ezker, horreen barri baino ez jakola emon behar udalbatzari.

Felixek eta Albertok dinoe errekurtsu bat jarri gura badabe espedientearen kopiaren jaube izan behar dirala, barruan idazkariaren txostena dala.

Alkateak dinotso informazino batzordean azaldu zala: zergaitik egiten dan udal aurrekontuaren aldarazpena, horren edukina eta espedientea onartzea noren eskumena dan eta, ganera, 306/2013 espedienteak 305/2013 dekretuagaz zerikusia daukala. Hau da, txosten juridikoan azaltzen diran zehaztapenak emon ziran.

Gai hori dala-eta be eztabaida izan da Alkatearen eta Felixen artean

2.- Felix Jauregizarrek 309/2013 dekretuaren ganean zerbitzu teknikoak egindako txostena eskatu dau, ze dekretu horretan ageri da alkateak Tekuni enpreari beharra emotea erabagi dauala, beti be zerbitzu teknikoek emondako informazinoaren arabera.

Alkateak dinotso ez dagoala ezelango txostenik, ze berak egin dauana da erabagia hartu, beti be udal aparejadorearengandik jasotako informazioaren arabera, azken honek aurkeztutako hiru aurrekontuak aztertu dauz-eta.

3.- 2013KO URTARRILAREN 1ETIK IRAILAREN 30ERA ARTEKO EPEARI JAGOKON UDAL AURREKONTUAREN BETEARAZPEN EGOEREAREN BARRI EMON.

2013ko urtarrilaren 1etik irailaren 30era arteko epeari jagokon udal aurrekontuaren betearazpenari buruzko agiriak zinegotziek daukiezan ezkerro, alkateak bertan dakarrenaren ganeko azalpen laburra emon dau, ondorengo esanez: udal aurrekontuari jagokonez, irailaren 30ean aurrekontu iraunkortasunaren eta gastu arauaren helburuak beteten dira, finantzazino gaitasuna eta beharrezana 362.564,78 eurokoa da, gastuaren gehiengo mugea 5.215.224,44 eurokoa da eta indarrean dagoan zorraren maila %170,45ekoa. Beraz, azken batean azaltzen dana da irailean hiruhilabete horretan aurrekontuaren betearazpena bat datorrela 2103rako onartutako udal aurrekontuagaz.

4.- TRAKZINO MEKANIKOZKO IBILGAILUEN GANEKO ZERGEAREN ALDARAZPENA BEHIN BETIKO ONARTU, HALA BEHAR BALITZ, BETI BE AURKEZTUTAKO ALEGAZINOEN GANEKO ERABAGIA HARTU OSTEAN.

Kontuan izanda, batetik, Bakioko Udalbatzak, 2013ko urriaren 31an, trakzino mekanikozko ibilgailuen ganeko zergearen tarifen aldarazpena behin-behinean onartu ostein, espedientea jendaurrean egon zan bitartean BILDU-BAKIO taldeak eta Miren Luke Verdes Cearra zinegotziak alegazino-idatzi bana aurkeztu ebela; eta, bestetik, idazkariak alegazino horreen harira egindako txostenen barri zinegotziek badaukiela.

Aitor Apraiz alkateak, EAJ/PNV udal taldearen izenean, alegazinoak atzera bota eta aldarazpenaren edukia behin-behinean onartu zan modura onartzea proposatu dau, horretarako irakurri dauan proposamenean, edukina hauxe izanik:

“Alkatetzak udalbatzari egiten deutson proposamena, honako tasa eta zergen aldarazpenen behin-behineko onespenerari egindako alegazinoen inguruan ebazteko eta tasa eta zerga honek behin betiko onesteko: estolderia zerbitzuak emoteagaitiko tasa arautzen dauen zerga ordenantza, ibilgailuak finka partikular eta garajeetara sartzegaitiko eta handik urteagaitiko eta lurzoru publikoa gurutzatzeagaitiko udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagaitiko tasa eta trakzino mekanikozko ibilgailuen ganeko zergea.

Udalbatzaren 2013ko urriaren 31ko erabagi bitartez behin-behinean onetsi zan aitatutako tasa eta zergen eranskinak aldatzea.

2013ko zemendiaren 22an Luke Verdes Cearra andreak idatzi bat aurkeztu eban BILDUko udal taldearen izenean, 1751. erregistro zenbakiagaz.

2013ko abenduaren 2an, Luke Verdes Cearra andreak idatzi bat aurkeztu eban 1778. erregistro zenbakiagaz.

Kontuan hartu beharra dago alegazino eta erreklamazinoetan, besteak beste, honakoak aitatzen dirala: 2012an onetsitako saneamendu plangintzaren txostenaren edukiaren ganeko ezagutza falta dagoala, BPGren %2ko igoerara modu sui generis batean heltzen dala eta, ibilgailuen ganeko zergari jagokonez, mailakakotasuna ezarri behar dala eta gama altuko ibilgailuei baino ez jakela tarifen igoera aplikatu behar.

Halanda ze, Toki Araubideko Oinarriei buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49.c) artikulua ezarritakoagaz bat etorritz, honako prozedura hau bete behar izango da: epe barruan aurkeztutako erreklamazino eta iradokizun guztien ganean ebaztea eta udalbatzak behin betiko erabagia hartzea.

Aurkeztutako erreklamazinoei jagokonez, Auzitegi Gorenaren 1986ko urtarrilaren 22ko epaiak zehazten dauen lez, erreklamazinoak ezin dira errekurtsotzat hartu, hau da, ez dira erabagia aurkaratzeko egintza bat, baizik eta toki tributuen inguruko borondate politikoa eratzen laguntzeko birtualtasuna daukien izapidetze egintza bat; izan be, informazio-aldi publikoaren izapidetzearen helburua honakoa da: erabagia hartzeko datuak eta elementuak emoteaz ganera (konporazioaren ebazpena egokiago eta hobetu hartu ahal izateko), ikututako pertsonen euren interesen alde alegatzeko edota erreklamatzeko aukera bat eukitea.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 86.3. artikulua ezartzen dauen ezker, interesdun guztien erreklamazino guztiak kontuan hartu eta erantzuna emon behar jake. Behin betiko onespen erabagiaren kontra, administrazioagazko auzibide errekurtsua imini ahal izango da.

Tasen eta zergen aldarazpenari jagokonez, aitatu beharra dago horreek gaurkotu dirala doikuntza plangintzaren 6. eranskinean azaldutakoari jarraituz; izan be, plangintza horretan ezartzen zan tributua urteko KPIen arabera igoko ziralda, ez besterik (kasu honetan, %2). Hau da, ez da barbarik egiten urtero-urtero ehuneko bi edo hiru igotzearen inguruan zehatz-mehatz; izan be, hainbat urtetako iraupena eukiko dauen plangintza batez berba egiten danean, gorabeherak eta aldarazpenak eukiko dauzen aurreikuspen bat egiten da, kasu honetan %2an geratu dan aurreikuspena.

Ibilgailuen ganeko zergaren aldarazpen zehatzari jagokonez, aitatu beharra dago zerga hori ez dala 2009tik aldatu; halan eta guztiz be, Trakzino Mekanikoazko Ibilgailuen ganeko Zerga arautzen dauen bagilaren 30eko 7/1989 Foru Arauaren 4. artikulua 1. idatz-zatiak ezartzen dauen lez, “zerga honako tarifa taularen arabera eskatuko da” eta 4. idatz-zatian honakoa ezartzen dau: “Udalek artikulua honetako 1. idatz-zatian ezarritako kuotak gehitu ahal izango dituzte koefiziente bat aplikatuz; koefizientea 3 izango da gehienez”. Beraz, ordenantzaren aldarazpena foru arauan ezarritakoari lotzen jake.

Estolda zerbitzua emoteagaitiko tasearen tarifearen aldarazpenari jagokonez, doikuntza plangintzaren 6.c) puntuan azaltzen dan lez, 2013an zerbitzuaren kostua 92.500 eurokoa izango da eta 2014an 94.350, hau da, ehuneko bi gehiago.

Toki Ogasunei buruzko Legeak honakoa ezartzen dau 26. artikuluan:

Zerbitzuen finantzaketari begirako tasak ezartzeko erabagiak txosten tekniko- ekonomikoak aztertuta hartu beharko dira; txosten horreetan azalduko da aurreikusitako tasen kostuaren estaldura. Edozelan be, Bildu udal taldeak ondo baino hobeto zehazten dauen lez, %2ko igoera ez da funtsezko aldarazpen bat eta, beraz, ez da beharrezkoa txosten tekniko-ekonomikoa eranstea birbalorizazio edo eguneratzeengatik arrazoitutako erabagiak hartu behar diranean. Era berean, txostena be ez da beharrezkoa trakzino mekanikozko ibilgailuen tarifak aldarazo behar izan ezkerro; izan be, zergak, tasak ez bezala, udalen finantza premiei eusteko balio daben tributatuak dira, hau da, udalerriko zerbitzuak finantzatzeko erabili behar dira. Ezinbestekoa da lege ezarritako zerbitzuak ordaintzeko sarrera arruntak bilatzea, eta ez da ahaztu behar trakzino mekanikozko zergea sarrera arrunten barruan sartzen dala.

Azkenik, kontuan hartu beharra dago alegazinoek ez dabezala aldarazpenen alderdi juridikoak indargabetzen; izan be, tarifen zenbatekoa %2an ez gehitzeko proposamena egiten dabe, 2012ko abenduaren 7an onetsitako doikuntza plangintza gitxiesteko ahaleginak egiten dabez eta maila altuko ibilgailuei zama handiagoa ezartzeko proposamena be egiten dabe norbanakoen gaitasun ekonomikoaren arabera zerga zama ezarrita.

Hori guztiori dala eta, ordenantzen aldarazpena Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 2/2005 Foru Arauaren 15 eta 16. artikuluetan ezarritakoaren itzalpean egin dan ezkerro, ondorioztatu behar da alegazino horreek ezetsi behar dirala”.

Ondoren, tramitatuko espedientea kontuan hartuta, zinegotziek botoa emon dabe eta, ondorioz, EAJ/PNVko Aitor Apraiz, Floren Zabala, Paloma Epalza Gorka Renteria eta Elsa Imatz zinegotzien aldeko botoagaz, bertaratutako zinegotzi gehienak diran ezkerro, Udalaren Osoko Bilkurak, erabagi hau hartu dau:

1.- Espedientean jasoten diran arrazoiak dirala-eta ondorengo honeek aurkeztutako alegazinoak atzera botatea: Bakioko Udaleko Bildu-Bakio udal taldeak eta Miren Luke Verdes Cearra andreak.

2.- Trakzino mekanikozko ibilgailuen ganeko zergea arautzen dauan ordenantza fiskalaren aldarazpena behin betiko onartzea, aldarazpenaren edukia hauxe izanik:

6. artikulua

1.- Zergea tarifa taula honen arabera eskatuko da:

IBILGAILUAREN POTENTZIA ETA MOTEA EURO

A) Turismoak:

8 zerga-zaldi baino gitxiago	23,45
8-11,99 zerga-zaldi	65,77
12-13,99 zerga-zaldi	133,67
14-15,99 zerga-zaldi	138,82
16-19,99 zerga-zaldi	172,92

<i>20 zerga-zaldi baino gehiago</i>	<i>200,11</i>
B) Autobusak:	
<i>21 plaza baino gutxiago</i>	<i>154,80</i>
<i>21-50 plaza</i>	<i>220,46</i>
<i>50 plaza baino gehiago</i>	<i>275,60</i>
C) Kamioiak:	
<i>1.000 kg-tik beherako zama erabilgarria</i>	<i>78,57</i>
<i>1.000 - 2.999 kg bitarteko zama erabilgarria</i>	<i>154,80</i>
<i>2.999tik gora 9.999 kg-ra bitarteko zama erabilgarria</i>	<i>220,46</i>
<i>9.999 kg-tik gorako zama erabilgarria</i>	<i>275,60</i>
D) Traktoreak:	
<i>16 zerga-zaldi baino gutxiago</i>	<i>32,83</i>
<i>16 - 25 zerga-zaldi</i>	<i>51,60</i>
<i>25 zerga-zaldi baino gehiago</i>	<i>154,80</i>
E) Trakzino mekanikodun atoiak eta erdiatoiak:	
<i>1.000 kg-tik beherako zama erabilgarria</i>	<i>32,83</i>
<i>1.000 - 2.999 kg bitarteko zama erabilgarria</i>	<i>51,60</i>
<i>2.999 kg-tik gorako zama erabilgarria</i>	<i>154,80</i>
F) Beste ibilgailu batzuk:	
<i>Ziklomotorrak</i>	<i>8,53</i>
<i>125 cc arteko motozikletak</i>	<i>8,70</i>
<i>125 cc baino gehiagotik 250 cc arteko motozikletak</i>	<i>14,63</i>
<i>250 cc baino gehiagotik 500 cc arteko motozikletak</i>	<i>29,23</i>
<i>500 cc baino gehiagotik 1.000 cc arteko motozikletak</i>	<i>58,45</i>
<i>1.000 cc-tik gorako motozikletak</i>	<i>116,90</i>

BILDU/BAKIO taldeko Felix Jauregizar, Alberto Bilbao eta Jon Peli Hormaecheko zinegotziek, barriz, BILDU-BAKIO taldeak eta Miren Luke Verdes zinegotziak aurkeztutako alegazinoen aldeko botoa emon dabe, eta, alegazino horreetan oinarrituz, proposatutako aldarazpenaren aurka bozkatu dabe.

5.- ESTOLDA ZERBITZUEN PRESTAZINOAREN GANEKO TASEAREN ALDARAZPENA BEHIN BETIKO ONARTU, HALA BEHAR BALITZ, BETI

BE AURKEZTUTAKO ALEGAZINOEN GANEKO ERABAGIA HARTU OSTEAN.

Kontuan izanda, batetik, Bakioko Udaltzako, 2013ko urtarraren 31n, estolda zerbitzuen prestazioaren ganeko tasearen aldarazpena behin-behinean onartu ostean, espedientea jendaurrean egon zan bitartean BILDU-BAKIO taldeak eta Miren Luke Verdes Cearra zinegotziak alegazino-idatzi bana aurkeztu ebela; eta, bestetik, idazkariak alegazino horreen harira egindako txostenen barri zinegotziek badaukiela.

Aitor Apraiz alkateak, EAJ/PNV udal taldearen izenean, alegazinoak atzera bota eta aldarazpenaren edukia behin-behinean onartu zan modura onartzea proposatu dau, horretarako lehen irakurri dauan proposamenaren ageri dan modura.

Ondoren, tramitatuko espedientea kontuan hartuta, zinegotziek botoa emoteari ekin deutse eta, ondorioz, EAJ/PNVko Aitor Apraiz, Floren Zabala, Paloma Epalza Gorka Renteria eta Elsa Imatz zinegotzien aldeko botoagaz, bertaratutako zinegotzi gehienak diran ezkerero, Udalaren Osoko Bilkurak, erabagi hau hartu dau:

1.- Espedientean jasoten diran arrazoiak dirala-eta ondorengo honeek aurkeztutako alegazinoak atzera botatea: Bakioko Udaleko Bildu-Bakio udal taldeak eta Miren Luke Verdes Cearra andreak.

2.- Estolda zerbitzuen prestazioaren ganeko tasea arautzen dauan ordenantza fiskalaren aldarazpena behin betiko onartzea, aldarazpenaren edukia hauxe izanik:

Estolderia zerbitzuak emoteagaitik ordaindu beharreko zerga kuota 9,18 eurokoa izango da hiru hilabeterik behin erabiltzaile bakoitzeko.

BILDU/BAKIO taldeko Felix Jauregizar, Alberto Bilbao eta Jon Peli Hormaeche zinegotziek, barriz, BILDU-BAKIO taldeak eta Miren Luke Verdes zinegotziak aurkeztutako alegazinoen aldeko botoa emon dabe, eta, alegazino horreetan oinarrituz, proposatutako aldarazpenaren aurka bozkatu dabe.

6.- IBILGAILUAK FINKA PARTIKULARRETARA ETA GARAJEETARA SARTU ETA HANDIK URTETEKO ERABILKERA PRIBATIBOAGAITIKO EDO UDAL JABARIAREN APROBETXAMENDU BEREZIAGAITIKO TASEAREN ALDARAZPENA BEHIN BETIKO ONARTU, HALA BEHAR BALITZ, BETI BE AURKEZTUTAKO ALEGAZINOEN GANEKO ERABAGIA HARTU OSTEAN.

Kontuan izanda, batetik, Bakioko Udaltzako, 2013ko urriaren 31n, ibilgailuak finka partikularretara eta garajeetara sartu eta handik urteteko erabilkera pribatiboagaitiko edo udal jabariaren aprobetxamendu bereziagaitiko tasearen aldarazpena behin-behinean onartu ostean, espedientea jendaurrean egon zan bitartean BILDU-BAKIO

taldeak eta Miren Luke Verdes Cearra zinegotziak alegazino-idatzi bana aurkeztu ebela; eta, bestetik, idazkariak alegazino horreen harira egindako txostenen barri zinegotziek badaukiela.

Aitor Apraiz alkateak, EAJ/PNV udal taldearen izenean, alegazinoak atzera bota eta aldarazpenaren edukia behin-behinean onartu zan modura onartzea proposatu dau, horretarako lehen irakurri dauan proposamenaren ageri dan modura.

Ondoren, tramitatuko espedientea kontuan hartuta, zinegotziek botoa emoteari ekin deutse eta, ondorioz, EAJ/PNVko Aitor Apraiz, Floren Zabala, Paloma Epalza Gorka Renteria eta Elsa Imatz zinegotzien aldeko botoagaz, bertaratutako zinegotzi gehienak diran ezkerro, Udalaren Osoko Bilkurak, erabagi hau hartu dau:

1.- Espedientean jasoten diran arrazoiak dirala-eta ondorengo honeek aurkeztutako alegazinoak atzera botatea: Bakioko Udaleko Bildu-Bakio udal taldeak eta Miren Luke Verdes Cearra andreak.

2.- Ibilgailuak finka partikularretara eta garajeetara sartu eta handik urteteko erabilkera pribatiboagaitiko edo udal jabariaren aprobetxamendu bereziagaitiko tasea arautzen dauan ordenantzearen aldarazpena behin betiko onartzea, aldarazpenaren edukia hauxe izanik:

Tasa hau aplikatzean ondokoak hartu behar dira kontuan:

- 1. Erkidegoarenak ez diran garajeak: 44,76 euro urtean.*
- 2. Erkidegoen garajeak:*
 - 2.1. Hiru metroko sarrerea: 44,76 euro urtean*
 - 2.2. Hiru metrotik gora metro lineal bakoetako 70,76 euro gehituko dira urtean; zatikiak horren proportzinozko gehikuntza dakarre.*
 - 2.3. Aurrekoa gorabehera, ibilgailu plaza bakoetaxagaitik 14,16 euro ordaindu behar dira.*

BILDU/BAKIO taldeko Felix Jauregizar, Alberto Bilbao eta Jon Peli Hormaeche zinegotziek, barriz, BILDU-BAKIO taldeak eta Miren Luke Verdes zinegotziak aurkeztutako alegazinoen aldeko botoa emon dabe, eta, alegazino horreetan oinarrituz, proposatutako aldarazpenaren aurka bozkatu dabe.

7.- V. PLANGINTZALDIARI JAGOKON UDAL ADMINISTRAZINO BARRUKO EUSKEREAREN ERABILERA PLANGINTZA ONARTU.

Aitor Apraiz alkateak dino V. Plangintzaldiaren ardatza dala udaletxean euskeraren erabilera bultzatzea lan hizkuntza modura, ez bakarrik administrazino barruan, bai eta herritarrekaz izaten diran hartu emonetan be.

Felix Jauregizar dino: plangintza horretan ageri diran datuak kontuan hartuz, esan daiteke euskereak administrazio barruan ondo funtzionatzen dauela, baina administratzen kanpo herritarren erabilera portzentaia oso negargarria da. Beraz, ikusten dogu administrazioa nahiz eta euskaldunduta egon, herritarren artean euskerearen erabilera normalizatzeko baliabideak ipini edota zelan edo halan bultzatzen ez badogu alferrekoa izango dala, eta erabilera bultzatzeko ahaleginak egin behar doguzala.

Horrenbestez, Udalaren Osoko Bilkurak, aho batez, hau da EAJ/PNV eta BILDU-BAKIO taldeetako zinegotzien aldeko botoagaz, erabagi hau hartu dau:

V. Plangintzaldiari jagokon (2013-2017) udal administrazio barruko euskerearen erabilera plangintza onartu.

8.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Felix Jauregizar zinegotziak galdetu dau Gailur enpresek ia ordaindu dauan hitzarmenaren arabera abenduaren 2013rako ordaindu beharreko 300.000,00 euro.

Aitor Apraiz alkateak dinotso; ez dau ordaindu, eta uste dogu kobrauko doguzala; izan be, horretarako beragaz hartu-emonetan gabilza.

Felix Jauregizarrek dinotso harek ia ordaindu dauzan be aurreko urtean ordaindu beharreko 150.000 euro.

Alkateak dinotso Elexalde eremuan hurrengo eraikitze lizentzia eskatzen daunean ordaindu behar daua.

Felixek dinotso ia zelan ordainduko dauzan aitaturako diruak, 240/2013 zk. epaian ageri dan kalte-ordaina ordaindu behar badau.

Eguneko aztergaien zerrenda barruan, ezta zerrendatik kanpo be, gai gehiagorik eztabaidatu eta erabagiteko ez dagoanez, alkate jaunak batzar hau 19:50an emon dau amaitutzat, eta horrelaxe egiaztatu dau idazkariak.

Alkatea

Idazkaria